

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 623/2019 Erabakia, urriaren 1ekoa. Onespena ematea Bernedoko eta Trebiñuko Konderriko udalerrriak mugatzeko batzordean Aldundi honek izango duen ordezkari berria izendatzeari, autonomia erkidego desberdinenak diren udalerrriak mugatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 15eko 3426/2000 Errege Dekretuak xedatutakoa aplikatuz

Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 22ko 30/2019 Erabaki bidez, Ingurumen eta Hirigintza zuzendari Amaia Barredo Martín, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren buru Macarena Ruiz Redondo eta Lurralde Informazio Atalaren buru Yolanda Perea Peláez izendatu ziren Bernedoko eta Trebiñuko Konderriko udalerrriak mugatzeko batzordean Aldundi honek izango dituen ordezkari berri, autonomia erkidego desberdinenak diren udalerrriak mugatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 15eko 3426/2000 Errege Dekretuak xedatutakoa aplikatuz.

Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 426/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen Amaia Barredo Martín Ingurumen eta Hirigintza zuzendari kargutik kentzea eta Gobernu Kontseiluaren uztailaren 30eko 509/2019 Erabakiaren bidez, Natividad López de Munain Alzola kargu horretarako izendatzea.

Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txostena egin eta proposatu zuen Natividad López de Munain Alzola Arabako Foru Aldundiaren ordezkari izendatzea Bernedoko eta Trebiñuko Konderriko udalerrriak mugatzeko batzorderako eta hartan Macarena Ruiz Redondorekin eta Yolanda Perea Peláezekin batera aritzeko.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio aldundiaren ordezkariak izendatzea legetan aurreikusitako batzordeetarako.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Natividad López de Munain Alzola, Ingurumen eta Hirigintza zuzendari den aldetik, Bernedoko eta Trebiñuko Konderriko udalerrriak mugatzeko batzordean Aldundi honek izango duen ordezkari izendatzeari, autonomia erkidego desberdinenak diren udalerrriak mugatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 15eko 3426/2000 Errege Dekretuak xedatutakoa aplikatuz, batzorde horretan Macarena Ruiz Redondorekin eta Yolanda Perea Peláezekin batera aritzeko.

Bigarrena. Ebazpen hau jakinaraztea Berdenoko udalari, dagozkion ondorioak izan ditzan."

Hirugarrena. Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratu ala ez gorabehera.

Gasteiz, 2019ko urriaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO